

2012ko ABENDUAREN 11ko UDALBATZARRA
PLENO DE 11 DE DICIEMBRE DE 2012

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

JON ABRIL OLAETXEA (lana / trabajo).

Tokia: BERAko Herriko Etxea

Eguna: 2012-12-11

Ordua: 19:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 11-12- 2012

Hora: 19:30

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2012.eko azaroaren 13an egindako bilera-
ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU
DUTE.**

**Vista el acta de la sesión celebrada el día 13 de
noviembre de 2012, por unanimidad SE A-
PRUEBA.**

**2.- BALORAZIO PONENTZIAREN PRO-
IEKTUA ONESTEA ETA JENDAU-
RREAN JARTZEA.**

**2.- APROBACION PROYECTO PONENCIA
DE VALORACIÓN Y EXPOSICIÓN PÚ-
BLICA.**

*Idazkariak gaia azaldu du eta prozedura nola
egin behar den Nafarroako Gobernuaren*

*La Secretaria explica el tema y cómo hay que
hacer el procedimiento siguiendo los consejos*

Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuaren gomendioak jarraituz. Horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

del Servicio de Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra. Tras ello, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

2010eko uztailaren 29an Udalak dagokion Balorazio Ponentziaren proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea onetsi zuen Udalak.

Con fecha 29 de julio de 2010 el Ayuntamiento acordó iniciar el procedimiento para la redacción del proyecto de la Ponencia de Valoración correspondiente.

Ikusirik, Catastro Estudios s.l. enpresak eginiko Balorazio Ponentziaren proiektua (6. berraztertzea, 2012ko azaroaren 28koa).

Visto el proyecto de Ponencia de Valoración redactado por la empresa Catastro Estudios s.l. (6ª revisión de fecha 28 de noviembre de 2010)

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroari buruzko 12/2006 Foru Legearen 36. artikuluari eta baita ere honekin bat datozen Foru Lege hau garatzen duen Erregelamenduaren artikuluei jarraikiz.

De conformidad con el artículo 36 de la Ley Foral 12/2006 del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra y concordantes del Reglamento de desarrollo de dicha Ley Foral.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Balorazio Ponentziaren proiektua (6. berraztertzea, 2012ko azaroaren 28koa) onestea.

1) Aprobar el proyecto de la Ponencia de Valoración (6ª revisión de fecha 28 de noviembre de 2012).

**2) Aipatu Balorazio Ponentziaren proiektua jendaurrean jartzea 20 lan eguneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Irigarkari Taulan argitaratutako iragarkia-
ren bidez.**

2) Someter a exposición pública el citado proyecto de Ponencia de Valoración durante el plazo de 20 días hábiles, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

3) Jendaurrean jarri baino lehen, proiektu horretatik sortzen diren baloreak grabatzea eskatzea Nafarroako Gobernuaren Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuari.

3) Antes de la exposición pública, solicitar al Servicio de Riqueza Territorial la grabación de los valores resultantes del citado proyecto.

4) Erabaki hau aipatu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuari bidaltzea behar diren ondoriatarako.

4) Remitir este acuerdo al citado Servicio de Riqueza Territorial a los efectos oportunos.

3.- URAREN ESKARIA GESTIONATZEKO PLANA APLIKATZEKO PARTE HARTZEA (GURATRANS POIEKTUA).

3.- PARTICIPACIÓN EN LA APLICACIÓN DE UN PLAN DE GESTIÓN DE LA DEMANDA DE AGUA (PROYECTO GURATRANS).

Alkateak gaia azaldu eta adierazi du gasturik

La Alcaldesa expone el asunto, señala que no

ez duela suposatuko, helburua dela ur kontsumoa aztertu eta Bera eta Lesakaren arteko lankidetzaz lantzea.

Hori dela eta, aho batez, erabaki hau hartu dute:

Ikusirik, GURATRANS Proiektua eta “Eskaria Gestionatzeko Plan” Azterketari buruz Udalari emandako dokumentazioa.

ERABAKI DUTE:

1) Uraren Eskaria Gestionatzeko Plana aplikatzeko parte hartzea.

2) Erabaki hau CRANA Fundazioari bidaltzea behar diren ondorioetarako.

4.- UDAL LANGILEGOAREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNEI BURUZ BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK EGINIKO TXOSTENAREN ALDAKETA.

Idazkariak gaia azaldu du eta horren ordezt, aho batez, honako erabakia hartu dute:

2012ko uztailaren 17an Udalak eginiko osoko bilkuran Bortzirietako toki entitateen plantilla organikoetako lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunei buruz Bortzirietako Euskera Mankomunitateak eginiko txostena, 2012ko martxoaren 12koa, onetsi zuen.

Bortzirietako Euskera Mankomunitateak 2012ko irailaren 4an egindako bileran lehen eginiko txosten horri aldaketa bat sartzea erabaki zuen. Aldaketa honen arabera, bertzeak bertze, txostenean aurreikusitako

supondrá gasto alguno, su finalidad es analizar el consumo del agua y trabajar sobre una gestión mancomunada entre Bera y Lesaka.

Tras lo cual, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

Vista documentación entregada al Ayuntamiento sobre el Proyecto GURATRANS y Estudio “Plan de Gestión de la Demanda”.

SE ACUERDA:

1) Tomar parte en la aplicación de un Plan de Gestión de la Demanda del agua.

2) Trasladar este acuerdo a la Fundación CRANA a los efectos oportunos.

4.- MODIFICACIÓN INFORME DE LA MANCOMUNIDAD DE EUSKERA SOBRE PERFIL LINGÜÍSTICO DEL PERSONAL MUNICIPAL.

La Secretaria explica el asunto y, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

En sesión celebrada por el Pleno el 17 de julio de 2012 se aprobó el informe sobre perfil lingüístico a establecer en los puestos de trabajo de las plantillas orgánicas de las entidades locales de Bortzirietako Euskera realizado por la Mancomunidad de Euskera de Bortzirietako Euskera, de 12 de marzo de 2012.

La Mancomunidad de Euskera de Bortzirietako Euskera en sesión celebrada el 4 de septiembre de 2012 ha acordado modificar el citado informe. De acuerdo con dicha modificación, entre otros, un grupo de puestos de trabajo (trabajadoras familiares y

lanpostu talde batek (famili-langile eta zerbitzu askotariko peoiak) ahozko hizkuntza eskakizun maila B2koa izanen dute eta idatzitakoan B1ekoa.

Izanik, 18/1986ko abenduaren 15-eko Foru Legearen 15.2 artikulua zera ohartarazten duela:

"Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".

Izanik, 29/2003 Foru Dekretuaren 18.1 artikulua honako hau xedatzen duela:

"Nafarroako Administrazio Publikoek, ebazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginei dagokien jakite maila adierazi beharko da."

ERABAKI DUTE:

1) Bortzirietako toki entitateen plantilla organikoetako lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunei buruz Bortzirietako Euskera Mankomunitateak eginiko txostenari lehen aipatutako irailaren 4an egingako aldaketa onestea.

2) Aldaketa honekin sortutako txostena BERRAKO Udalaren plantilla organikoan aplikatzea.

3) Orain Nafarroako Enpleguaren Zerbitzuaren bidez aukeratu behar den D mailako lanpostuari aplikatzea aldaketa hau.

5.- HERRIKO ETXETAN HAUTETSIEK BOTOA EMATEKO ESKUBIEDEARI BURUZKO ADIERAZPEN POLITIKOA.

peones de servicios múltiples) tendrían el nivel B2 en el perfil lingüístico oral y el B1 en el escrito.

Siendo que el artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconce indica que "en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vasconce y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros".

Siendo que el artículo 18.1 del Decreto Foral 29/2003 establece que "Las Administraciones Públicas de Navarra, mediante resolución motivada, indicarán en sus respectivas plantillas orgánicas los puestos de trabajo para los que el conocimiento del vasconce sea preceptivo para poder acceder a los mismos en función del contenido competencial, de las determinaciones de este Decreto Foral y de la demanda, expresando el grado de dominio que corresponda al contenido de dichos puestos de trabajo."

SE ACUERDA:

1) Aprobar la modificación de 4 de septiembre del informe antes reseñada sobre el perfil lingüístico a establecer en los puestos de trabajo de las plantillas orgánicas de las entidades locales de Bortziriak realizado por la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak.

2) Aplicar el informe resultante tras esta modificación en la plantilla orgánica del Ayuntamiento de BERA.

3) Aplicar esta modificación al puesto de trabajo de nivel D cuya selección se está llevando a cabo a través del Servicio Navarro de Empleo.

5.- DECLARACIÓN POLÍTICA SOBRE EL DERECHO A VOTO DE LOS Y LAS REPRESENTANTES ELECTAS EN LOS MUNICIPIOS.

Alkateak irakurri du adierazpena eta, aho batez, onartu dute ondoko testua izanik:

La Alcaldesa lee la declaración y, por unanimidad, se aprueba siendo el texto el siguiente:

Zinegotzien botoa pertsonala da eta ezin da bertzeen esku utzi, lana eta familia bateratzea pertsonala den bezala. Horregatik, zinegotzi batek amatasun edo aitatasun bajaran dagoenean, aldi baterako ezin denean bere lanera joan, galtzen du udaleko osoko bilkuretan botoa emateko eskubidea, eta ondorioz zinegotzi hau hautatua izan zenean egokitu zitzaion ordezkari-tza ere galtzen du.

Exposición de motivos

El voto de los concejales y concejalas es personal y indelegable. Conciliar la vida laboral con la familiar también lo es. Es por este motivo que cuando una concejala o concejal está de baja maternal o paternal y no puede acceder a su espacio de trabajo de manera temporal, pierde la capacidad de ejercer su derecho a voto en los plenos municipales y, por tanto, también se pierde la representatividad que este concejal o concejala comporta y por el cual fue escogido o escogida.

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 14.8 artikulua arabera Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako, Bortere Publikoek ezarri behar dituzte emakumeen eta gizonen lana eta bizitza pertsonala eta familiarraren kontziliazioa bermatuko duten neurriak. Beraren Zazpigarren Azken Xedapenaren arabera, hautetsien amatasun eta aitatasun baimenak bete ahal izateko, gobernuak bultzatu behar ditu indarreko legeriaren aldaketa prozesua hasteko behar diren akordioak.

Según el artículo 14.8 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, los Poderes Públicos tienen que establecer medidas que aseguren la conciliación del trabajo y la vida personal y familiar de las mujeres y los hombres. Según la Disposición Final Séptima de la misma, el gobierno tiene que promover acuerdos necesarios para iniciar un proceso de modificación de la legislación vigente con la finalidad de posibilitar los permisos de maternidad y paternidad de los y las cargos electos.

Horretarako, bai Kataluniako Parlamentuak bai Diputatuen Kongresuak, jada aldaketa desberdinak onartu dituzte Berdintasun-Lege hau eraginkorra izan dadin. Udaletan legeria hau ez da oraindik moldatu, ondorioz, konparaziozko irain demokratikoa sortzen da gobernu-organo desberdinen artean.

A estos efectos, tanto el Parlamento de Cataluña como el Congreso de los Diputados, ya han aprobado diferentes modificaciones para hacer efectiva esta Ley de Igualdad. En los Ayuntamientos aún no se ha adaptado esta legislación, por lo que crea un agravio comparativo entre los diferentes órganos de gobierno democrático.

Hori dela-eta, udaletan egoera honetan dauden aukeratutako ordezkariak ezin dute osoko bilkuretan bozkatu.

Por este motivo, los y las representantes electos que se encuentran en esta situación no pueden votar en los plenos municipales.

Hautetsien amatasun baimenen gainean,

Según el Informe del Observatorio del Derecho europeo, autonómico y local de la Universidad

Granadako Unibertsitatearen Eskubide europar, autonomiko eta lokaleko Behatuko Txostenaren arabera, 3 aukera egongo lirateke kasu hauetan botoa eman ahal izateko. Lehenengo aukera izanen litzateke hautagai zerrendako hurrengoak ordezkatzeko hautetsia, honela udal ordezkariak bere osotasunean mantenduko litzateke. Zinegotzien presentzia osatzeko, bigarren aukera izango litzateke gaurko teknologiak erabiltzea eta telematikoki botoa ematea. Eta hirugarrena eta azkena, botoa udalbatzako beste pertsona baten esku uztea.

Honengatik guztiatik, Osoko Bilkura honetan, honakoa proposatzen dugu onartzeko:

AKORDIOAK:

- 1. BERAko Udalak Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzeko eskaria bultzatuko du, amatasunagatik edo aitatasunagatik edo gaixotasun larriagatik bajarik egotekotan boto-eskubidean bermatzeko udalak inongo gainkosturik izan gabe.**
- 2. Amatasunagatik edo aitatasunagatik edo gaixotasun larriagatik bajarik egotekotan osoko bilkuretan boto-eskubidea egoki bermatzeko, Estatuari eskatzea akordioa bultzatzeko,**
- 3. Aurreko akordioak Gobernu espainiarraren Lehendakariatzara, Diputatuen Kongresuaren Lehendakariatzara, Senatura eta Parlamentuaren Lehendakariatzara, eramatea.**

de Granada sobre los permisos de maternidad de los cargos electos, habría 3 formas de poder votar en estos casos. La primera, por sustitución del cargo electo por el siguiente de la lista de la misma candidatura, atendiendo así a la plena representatividad institucional. La segunda opción, sería utilizar las tecnologías actuales como herramienta para suplir la presencia de los ediles y poder votar de forma telemática. Y la tercera y última, delegar el voto en otra persona del consistorio.

Por todo esto, se propone al Pleno la adopción de los siguientes

ACUERDOS

1. Instar al Ayuntamiento de BERA a impulsar la demanda de modificación respecto a la Ley de Bases Locales necesaria para que un cargo electo pueda ejercer el derecho de voto en caso de baja por maternidad o paternidad o por enfermedad grave, utilizando un método que no comporte ningún gasto suplementario a los ayuntamientos.
2. Pedir al Estado que promueva el acuerdo que permita ejercer el derecho de voto en los plenos municipales mediante la manera adecuada por tal de poder ejercer el derecho de voto en caso de baja por maternidad o paternidad o por enfermedad grave.
3. Trasladar los anteriores acuerdos a la Presidencia del Gobierno español, a la Presidencia del Congreso de los Diputados y al Senado y a la Presidencia del Parlamento.

6.- EHU-K EMANDAKO SARIENGATIK M. ERDOZAINI ETA J. ERRANDONEA-RI ZORIONTZA.

Alkateak gaia azaldu eta gero, aho batez, honako erabakia hartu dute:

**2011-12 ikasturteko espedienterik hobere-
nak izateagatik Euskal Herriko Unibertsita-
tateak Maitane Erdozain Ibarriari Biologia
ikasketean eta Jon Errandonea Martini
Geologia ikasketetan saria eman die.**

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

**1) Biologia ikasketetan 2011-12 ikasturteko
espedienterik hobere-
na izateagatik MAI-
TANE ERDOZAIN IBARRARI zoriontzea.**

**2) Geologia ikasketean 2011-12 ikasturteko
espedienterik hobere-
na izateagatik JON
ERRANDONEA MARTINI zoriontzea.**

**7.- L. M^a RETEGIRI EMANDAKO KIROL
MERITUAREN 2012. URTEKO ZILA-
RREZKO DOMINARENGATIK ZO-
RIONTZA.**

Alkateak ere gaia azaldu du.

*Ondoren, Fernando Berasain zinegotziak ai-
patu du Udalak proposatu zuela domina hori
izateko betebeharrak betetzen baitzuen eta,
segidan, Luis M^a Retegui proposamen ho-
rregatik Udalarari eskerraz emateko bidali
duen idatzia irakurri du.*

*Horren ondoren, aho batez, honako erabakia
hartu dute:*

**2012ko Kirol Merituaren Zilarrezko Domi-
na Luis M^a Retegi Iturbideri eman dio Na-**

**6.- FELICITACIÓN A M. ERDOZAIN Y J.
ERRANDONEA POR LOS PREMIOS
RECIBIDOS EN LA EHU.**

*La Alcaldesa explica el tema y, por unanimidad,
adoptan el siguiente acuerdo:*

Maitane Erdozain Ibarra en Biología y Jon
Errandonea Martin en Geología han sido pre-
miados por la Universidad del País Vasco
(EHU) por tener el mejor expediente en el curso
2011-2012.

Por ello, SE ACUERDA:

1) Felicitar a MAITANE ERDOZAIN IBARRA
por el premio al mejor expediente de Biología
en el curso 2011-2012.

2) Felicitar a JON ERRANDONEA MARTIN
por el premio al mejor expediente de Geología
en el curso 2011-2012.

**7.- FELICITACIÓN A L. M^a RETEGI POR LA
MEDALLA DE PLATA AL MÉRITO DEPOR-
TIVO EN EL AÑO 2012.**

La Alcaldesa explica, también, este tema.

*Posteriormente, el concejal Fernando Berasain
explica que fue el Ayuntamiento quien le pro-
puso para esta medalla al cumplir los requisitos
que se establecen para ello y, seguidamente,
procede a la lectura de un escrito de Luis M^a
Retegui en el que éste agradece al Ayuntamiento
por la propuesta realizada.*

*Tras ello, por unanimidad, se adopta el
siguiente acuerdo:*

El Gobierno de Navarra ha concedido a Luis M^a

farroako Gobernuak Beran pilota sustatzen 26 urtez egindako lanarengatik.

Retegi Iturbide la Medalla de Plata al Mérito Deportivo en el año 2012 por su dedicación durante 26 años al fomento de la pelota en Bera.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

Por ello, SE ACUERDA:

1) Nafarroako Gobernuak emandako 2012ko Kirol Merituaren Zilarrezko Domina-rengatik LUIS M^a RETEGI ITURBIDeri zoriontzea.

1) Felicitar a LUIS M^a RETEGI ITURBIDE por la Medalla de Plata al Mérito Deportivo concedida por el Gobierno de Navarra.

8.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

8.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandoak: B29/2012tik B34/2012ra.

1) Bandos: del B29/2012 al B34/2012.

2) Ebazpenak: 2012ko azaroaren 12ko 223. ebazpenetik 2012ko abenduaren 4ko 242.era arte.

2) Resoluciones: De la resolución nº 223 de 12 de noviembre de 2012 a la nº 242 de 4 de diciembre de 2012.

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hau tratatu dute:

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

9.- “MARRICHIWEU!” MOZIOA

9.- MOCIÓN “MARRICHIWEU!”

Garazi Taberna Tellechea zinegotziak mozioaren testua irakurri du.

La concejal Garazi Taberna Tellechea lee el texto de la moción.

Honi buruz honako adierazpenak izan dira:

Al respecto se producen las siguientes intervenciones:

Nekane Perez:

Nekane Perez:

Udal babesa ematea bai baina tokia udalarena ez denez ez daki zein puntutaraino baliotzen ahal den.

Ayuda del Ayuntamiento sí pero como el lugar no es municipal no sabe hasta qué punto puede valer.

Santiago Alzuguren:

Santiago Alzuguren:

Muralari egin diotena errespetu falta da.

Lo que le han hecho al mural es una falta de respeto.

Jose M. Portu:

Jose M. Portu:

Aurkako ekintzak 3 aldiz egin dizkiote mura-

Han actuado contra el mural 3 veces y, quizás,

lari eta, agian, beste tokia egiteko bilatu behar da bestela, sinfin bat bihurtuko da.

Mural honetan ez diote inori erasotzen, murala konpondu bai baina beste pausuak eman behar dira.

Juan Losa:

Beste paretan edo udal pareta batean egin beharko zuten, egin duten tokian ez da udal kompetentzia. Ez dago muralaren aurka baina 4 pertsonen 3.000 eurotako multa dute.

Garazi Taberna:

Gaizki-ulertze bat izan zen baina pertsona horiek identifikatuak izan badira egunez lanean ari zirelako ez aurkako ekintzak egin dituzten pertsonak bezala gaez.

Zinegotzi batzuk Juan Losari leporatu diote bera dela muralaren salaketaren atzetik dagoena.

Horren ondoren, Juan Losak mozioa gazteleraz eskatu du bestela abstenituko da eta Garazi Tabernak erantzun dio nahi izan ezkeren mozioan dauden 3 puntu gazteleratuko diola.

Gazteleratu ondoren, Juan Losak dio 2 puntu onartuko zituela baina mozioa aurkeztu dutenek eta gainontzeko zinegotziek erran diote mozioa osorik bozkatu behar dela. Beraz, Juan Losak dio abstentziora behartzen dutela.

Hori dela eta, bozketa eginda ageri dira 9 boto alde (3 Aralar, 4 Bildu eta 2 EAJ/PNV) eta abstentzio bat (UPN).

Beraz, mozioa onartu dute ondoko testua izanik:

haya que buscar otro lugar si no se convertirá en un sin fin.

En este mural no se ataca a nadie, arreglar el mural sí pero hay que dar otros pasos.

Juan Losa:

Que se haga en otra pared o en una pared municipal, en ese lugar no es competencia municipal. No está en contra del mural pero hay 4 personas con una multa de 3.000 euros.

Garazi Taberna:

Hubo un mal entendido pero esas personas han sido identificadas porque estaban trabajando de día no como los que han actuado en contra del mural que lo hacen de noche.

Varios concejales/as le acusan a Juan Losa de estar detrás de la denuncia del mural.

Tras lo anterior, Juan Losa pide la moción en castellano si no se abstendrá y Garazi Taberna le contesta que si quiere le traducirá al castellano los 3 puntos a aprobar de la moción.

Tras la traducción, Juan Losa dice que aprobaría 2 puntos de la moción pero quienes la han presentado y el resto de concejales/as dicen que hay que votar la moción completa. Por lo que Juan Losa manifiesta que le obligan a abstenerse.

Tras todo lo anterior, se realiza la votación resultando 9 votos a favor (3 de Aralar, 4 de Bildu y 2 de EAJ/PNV) y una abstención (UPN).

Por lo que, se aprueba la moción con el siguiente texto:

MARRICHIWEU! (Maputxe hizkuntzan “hamar aldiz irabaziko zaituztegu”)

Berako Kaxerna Gaztetxeari mugitzea, ezagutzea eta konpartitzea gustatzen zaio. Horregatik munduko erresistentziak ardatz gisa hartuz errealitate ezberdinak lantzeko astebeteko zikloak antolatzen hasi zireen orain dela urte pare bat. Sahara, Palestina, emakumeon borroka edota Maputxe herria gehiago ezagutzeko eta elkartasuna adierazteko asmoz hitzaldiak, antzerkiak, dokumentalak, bazkariak, eztabaidak eta zikloi bukaera emateko muralak egin dituzte. Azken hauek beti ere momentuko udaletxearen baimen sinatua eskutan izanik margotuak. Hala ere, paretak txukuntzen nahiz margotzen aritutakoan aunitzetan identifikatuak izan dira. Zalaingo zubian 2011ko otsailean egindako muralak jada hiru eraso izan ditu (gauzez eta gordekerian eginak hirurak): Lehenengoan agertzen diren haur eta zahar Maputxeci bigoteak margotu zizkieten spray grizez. Handik gutxira murala erabat zikindu zuten bi pertsonaien eta gaztetxeko sinaduraren gainean spray beltz potea hustuz. Horren ondotik murala berriro moldatu zen, hasierako itxura izan zezan. Joan den igandean, azaroaren 25ean, birmoldatutako murala gainetik ezabatua agertu zen, bandera espainiarrekin eta honen koloreekin.

Ekintza hauek egin dituztenek beraien burua argi definitu dute: adierazpen askatasunaren, duintasunaren eta gaztetxearen kontrakoa erabat.

Mozio honen bidez, Berako Udalak adosten du:

- Muralaren kontrako ekintza ezkutu eta erasotzaile hauek salatzea.
- Murala egin eta moldatu zutenei gure babeska eskaintzea, edozein salaketa edo multaren aurrean.
- Murala moldatzeko behar diren neurriak hartzea eta pausuak ematea, honela murala bertan egoki mantendu dadin.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:10etan.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:10 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta